

## Elkarrizketa Enpresa Komiteko presidente Koldobike Muniaini

*Koldobike Muniain zarauztarra Lehendakartzako eta Foru Administrazioako Departamentuko langilea da. Aldundiko langileen komiteko presidentea da egun, eta LABen sekzio sindikalean aritzen da aspaldidanik. Bere ikuspuntua jakin nahi izan dugu langileen hizkuntza ohiturez eta Aldundiko hizkuntza ofizialen erabileran planaz.*

**Galdera.** Gero eta gehiago dira euskal hiztunak Diputazioko plantillan. Horrek ekarri al du langileen arteko harremanak gero eta gehiagotan euskaraz izatea?

Bai, zalantzarik gabe. Urte dezente daramatzat aldundi honetan, eta gogoan dut hona sartzean giro erabat erdalduna zela (1980ko kontuez ari naiz). Hala ere, eta bulegoen arabera alde handia dagoen arren, irudipena dut oraindik ez dugula euskara naturaltasunez erabiltzen, lanari buruzko elkarrizketetan, batik bat. Inertzia handia dago gazteleraz aritzeko. Eta idatzian zer esanik ez, euskaradunen kopurua ez da, oraindik ere, erabileran islatzen. Akuilu lan handia daukagu egiteko.

**G. Eta sekzio sindikalen eguneroko lanean, orain gehiago egiten al da euskaraz?**

Besteek ez dakit, baina gurean, LABekoan, euskara izan dugu beti hizkuntza nagusia. Nagusia, diot, jarrerak eta erabilerak aldatu egiten baitira kideen arabera. Lehen baino gehiago? Antzera, esango nuke. Idatzizkoak ematen dizkigu lanik handienak guri ere, itzulpen lan handia egiten baitugu.

**G. Aldundiak gipuzkoar guztiei eman behar die zerbitzua, haiek hautatutako hizkuntzan eman ere. Oro har, azken urteotan nabarmen aurreratu da Aldundian jendeari arreta ematean eta aukeratutako hizkuntzan zerbitzua hartzean, baina oraindik herritarrek zerbitzu hizkuntzari lotutako kexak aurkezten dituzte. Nola konpondu daitezke hutsune horiek?**

Nire iritziz, arazoa ezin izango da guztiz konpondu langile guztiak euskaraz hitz egiten eta idazteko gai ez diren bitartean. Jendaurrean euskaraz hitz egiten duena jartzea ondo dago, baina hori lehen harremana besterik ez da askotan; zer egiten dugu lehen hitza euskaraz egiteko gai badira, baina, ondoren, gaiak ebatzi behar dituztenek gazteleraz egiten badute? Zerbitzua osotasunean hartu behar da. Nori ez zaio gertatu leihatilan euskaraz egin eta teknikariarekin edo egon behar denean euskaraz jarraitu ezina! Ez dut ulertzen (ezta onartzen ere) lanpostuak betetzeko deialdietan 3. eta 4. hizkuntza eskakizuna eskatu eta gero lan guztia gazteleraz egiteko dagoen joera. Joera hori iraultzea lortzen ez badugu, hizkuntza eskakizunen planek ez badute zerbitzua euskaraz eskaintzeko balio, porrota da.

Lehenengo, beraz, sartzen diren langile guztiak euskal hiztunak behar dute izan, hizkuntza eskubideak bermatu nahi baditugu, behintzat.

Bigarrenik, langileoi eskaintzen zaigun prestakuntza oro euskaraz izatea lortu behar dugu. Hori hala ez den bitartean, gutxienez, euskaraz jarduteko adinako hizkuntza maila duten langile guztiei euskarazko prestakuntza eskaini behar zaie, zerbitzua hizkuntza horretan eskaintzeko gaitasuna indartuz joateko.

Eta hirugarrenik, langileak euskara normalizatzeko ahaleginetan dugun erantzukizunaz jabearazi behar ditugu. Ezin gara txantxetan ibili. Hizkuntza baten biziraupenari buruz ari gara eta.

**G. Aldundiaren helburuetako bat da euskara ere langileen lan hizkuntza izatea. Zure ustez, zer aurrerapauso eman daitezke Diputazioan, eta nola lagundu dezakete horretan enpresa komiteak eta sekzio sindikalek?**

Aurreko galderari erantzuterakoan aipatu ditut eman ditzakegun urrats batzuk. Langile Batzordeak eta sail sindikalek lan handia egin dezakegu, batez ere langileen artean euskararen aldeko ideologia sustatuz eta, zuena bezalako ekimenak babestuz eta bultzatuz, langileok izan gaitzen aldaketaren protagonista garrantzitsuenak.

**G. Zerbitzu kartetan herritarren hizkuntza aukera errespetatzen alde egin du Aldundiak. Uste al duzu horrelako aukera planteatu daitekeela Diputazioko langileen kasuan, adibidez formazio ekintza batean taldea ez osatzea euskarazko saioa ez egiteko arrazoi gisa ematen denean?**

Nire ustez hori onartezina da. Euskaraz antolatzen diren ikastaroak sustatzeko lana ere egin behar da, alde batetik; ezin dezakegu esan "ez dago nahiko jende eta bertan behera utziko dugu ikastaroa". Gaztelerazkoetan euskaldun ugarik ematen du izena, hori jakina da, hor potentzial handia dago eta horiek dira euskarazkoetara bideratu beharko liratekeenak. Baina, nork egin behar du lan hori? Diputazioko arduradunek, alde batetik, eta langileen ordezkariok, bestetik, badugu zer esan eta zer egin.